

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

180/2019 Foru Agindua, ekainaren 19koa, zeinaren bidez behin-behineko izendapenak baimentzen diren Gasteizko Udaleko kontuhartzaile lanposturako, titularraren oporraldiagatik

Gasteizko Udalak atal honi jakinarazi dio behin-behineko izendapen baten beharra duela, oporraldian Alfredo Barrio Gil udaleko kontuhartzaile nagusia ordeztzeko.

Horregatik, proposatzen du ondoko funtzionario hauek behin-behinekoz izendatzea:

Amaya Alfonso Acebo: 2019ko ekainaren 27ik uztailaren 5era, biak barne.

Ana Bazterrica Mancebo: 2019ko abuztuaren 6tik abuztuaren 9ra (biak barne)

Carmen Escobar Soca: 2019ko abuztuaren 26tik irailaren 6ra (biak barne)

Mariló Movilla Rivas: 2019ko abuztuaren 20tik abuztuaren 25era (biak barne)

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioko funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betetz, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Ondoren aipatzen diren funtzionarioak behin-behinekoz izendatzea, Gasteizko Udaleko kontuhartzaile lanpostuari dagozkion eginkizunetan jardun dezaten haren titularra oporraldiagatik kanpoan dagoen bitartean:

Amaya Alfonso Acebo: 2019ko ekainaren 27ik uztailaren 5era, biak barne.

Ana Bazterrica Mancebo: 2019ko abuztuaren 6tik abuztuaren 9ra (biak barne)

Carmen Escobar Soca: 2019ko abuztuaren 26tik irailaren 6ra (biak barne)

Mariló Movilla Rivas: 2019ko abuztuaren 20tik abuztuaren 25era (biak barne)

Bigarrena. Izendapenak aurreko apartatuan adierazitako epean baino ez du izango indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Gasteizko Udalari eta Eusko Jaurlaritzaren Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta ALHAOn argitara dadila agintzea.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 19a

Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua
MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Oreekaren zuzendaria
IÑAKI GUILLERNA SAENZ